

GETXO / Magiaren mundua hurbilduko du Algortara Liburu Azokak

Ostegunean hasita, magiaren mundua hurbilduko die haurrei Getxoko Liburu Azokak. Lau egunez, gai horren inguruko hainbat ekitaldiz gozatu ahal izango dute txikiek, Getxoko Kultur Etxeak aurreratu duenez. Algortako Telletxe plazara gerturatzen direnek udalerriko hamaika liburu-dendaren postuak bisitatzeko aukera izango dute; literaturaren azken nobedadeak, komikiak, haurrentzako ipuinak edo aukerako liburuak erosteko. Ohi denez, azokan, udal liburutegiek antolatuta, zenbait jarduera izango dira: ipuin kontaketak, egileen sinatze-saioak, haurrentzako jarduerak, magia ikuskizunak eta ikasle getxoztarren jendaurreko irakurketa, besteak beste. Azoka aste bukaerara arte egongo da irekita egun osoan, ostegunean eta igandean izan ezik (martxoaren 31n arratsaldean eta apirilaren 3an goizean irekiko dute soilik). Aurrekoetan bezala, Getxoko Kultur Etxeko liburutegiek beraien gunea izango dute azokan. Horrela, liburuak maileguan hartzeko aukera eskainiko zaie irakurleei, eta euren etxeetara eraman ahal izango dituzte. Halaber, umeek eta gazteek komiki eta ipuin interesgarriak aurkituko dituzte, bertan irakurri ahal izateko. Argazkian, Getxoko Liburu Azoka artxiboko irudian / Getxoko Kultur Etxea.

Jarduerei dagokienez, azoka osoan zehar haurrentzako tailerrak, jolasak eta argazki zaharren erakusketa izango dira. Azken horretan, San Nikolaseko liburutegiko argazki bildumako irudiak egongo dira ikusgai. Aurten, erakusketak Algortako Telletxe plazaren bilakaera izango du ardatz.

Horrenbestez, azokaren jarduera egitaraua osteguneko arratsaldean hasiko da Joxe Mari Carrere kontularien eskutik. 18:00etan, 'Abrite portas, klis klas!' euskarazko ipuin kontaketa eskainiko du. Biharamunean, ostiralean, jendaurreko irakurketa izango da hamahirugarren urtez jarraian, ikasle getxoztarren eskutik, goizeko hamarretatik aurrera. Ostiralean ere, 18:00etan, Tor Magoaren euskarazko magia ikuskizuna izango da.

Tokiko idazleak

Azken urteotan gertatu den moduan, aurten ere bertoko egileak egongo dira azokan. Guzti horiek beraien azken lanak aurkeztuko dituzte eta aleak sinatuko dizkiete bisitariei larunbatean, 12:00etatik 14:00etara. Aurten honako idazle hauek parte hartuko dute: Mikel Valverde, Willy Uribe, Gotzon Mantuliz, Guadalupe Oteo, Asis Arana, Elena Moreno, Ander Delgado eta Jose Almeida. Azkenik, igandean, apirilak 3, gaztetxoek Kandelak Argipean taldeko Anabel Muroren istorioez gozatu ahal izango dute 12:30ean hasiko den ' El oraculo de los cuentos ' ipuin kontaketan